

Balioak eta horiek sexu-genero sisteman duten funtzioa (Lana taldeka eta analisia talde guztien bilkuran)

Denbora: 30 minutu.

ZENBAIT BALIO ETA HORIEK SEXU-GENERO SISTEMAN DUTEN FUNTZIOA	
(A) Batez ere: EMAKUMEA AMA DA	(B) Batez ere: GIZONA HORNITZAILEA DA
Amatiarra da, amaren irudiko	Aberastu egin behar du, bere etorkizuna landu
Ezkontzea da haren zoria, amatasuna	Arrakasta da haren zoria, konkistak egitea, boterea eskuratzea
Haren lekua etxea da: familia	Haren lekua gizadia da: gizartea eta politika
Gozoa, eraman onekoa, laguntzeko prest, apala	Indartsua/zakarra, egonarria, errebela, handizalea
Zentzuzkoa, arretatsua, beldurbera, zuhurra	Saiatu zalea, ausarta, adoretsua, bere burua arriskatzen du
Haren bizigogo nagusia amodioa da	Haren bizigogo nagusia boterea/arrakasta/garaipena dira
Maiteminduko duen gizonaren zain egon behar du/hura erakarri behar du	Konkistatzailea da, gonazalea, inork "sarea botatzea" saihesten du
Sotila: gizonaren bulkadak bideratu behar ditu	Beregaina: inork bideratzea saihestu behar du
Koketa, txukuna, eratsua, xehetasun zalea	Axolagabea, nabarmendu zalea, arduragabea
Zintzoa, sexugabea/sexu gutxikoa, txeratsua	Maltzurra, sexuduna argi eta garbi (heterosexuala)
Leiala: monogamoa, ez da adulteriogilea	Leiala: zintzoa, ez ditu nagusia, aberria eta abar saltzen
Erakoa: ez du ospe txarrik (sexu kontuetan)	Erakoa: ez du lapurretan egiten, gizartean prestigioduna da
Ahula edo aldakorra: babesa behar du, besteren mendekoa da	Indartsua edo irmoa: babestu egiten du, erabaki, mantendu
Zaindu egiten du: maratza da, saiatua (ez du lanik egiten ordea)	Lan egiten du: langilea da, profesionala...
Haren saria txerak dira (etxe zorionekoa)	Haren sariak: lanlekuan gora egitea, soldata...
Haren lana/soldata laguntza izaten dira	Familia mantentzen du
Laburbilduz: Emakumetasuna gorde behar du	Laburbilduz: Gizona izan behar du (gizon tankerakoa)

Gida

Balioen taula banatu, taldean ondoko galderak eztabaidatu eta elkarri azaldu erantzunak.

Galderak:

- A taulak emakumeen generoaren eredua adierazten al du? Eta B taulak gizonen generoaren eredua? Balio moral horiek, eta gizarteak gizonengandik eta emakumeengandik itxaroten duena, indarrean al daude oraindik ere haien inguruan?
- Zein erlazio dute taulako ezaugarriek gizakion alde biologiko hutsarekin?
- Zein eragin du genero eraikuntza horrek lan munduan? Ez al da egia neskameei, askotan, zerbitzuen (aparteko lan eta orduen) ordainetan oparitxoak edo txerazko hitzak eman nahi izaten dizkietela? Gai al gara kontu egiteko lansaria gehitzeko eskatu ondoren gizon bati esango baliote "zer nahi

duzu gehiago ba, etxekotzat hartzen zaitugu eta?", zein neurritan harrituko litzatekeen hura?

- A taula lagungarri izan daiteke ulertzeko zergatik emakumeek ez duten beren burua "benetako langilezat"; B taulak argitu dezake zergatik egiten zaien hain gogor gizonei beren familia esparruan egokiro komunikatzea, edo zergatik egiten zaien hain nekeza etxeko kontuetan moldatzea.
- Egizue gogoeta desberdintasun horiek gizon eta emakumeen arrazoibideetan duten eraginez, batzuen eta besten nahi eta xedeetan duten efektuez.

Jatorria: M^a Teresa Ayllón Trujillo (2002): "El concepto de género en el marco de la cooperación" in *Revista Ingeniería Sin Fronteras*, 15. zk., ISF, Madril.